



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2010-02-24**

VIII. URTEA 1936. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Erremontea kinka larrian, Galarretak jarduera etengo duela esan ondoren

KIROLA Eskualdeko lau pilotari dabilta profesionaletan: Zeberio II.a, Aizpurua II.a, Altuna II.a eta 'Gaztelu'

ALTUNA IIA Lesioaren osaketa «nahiko berde» dagoela eta erremontean jarraitzea «nahiko zaila» duela esan du s



E. EZEIZA

UGAITZ MENDIZABAL ASTILLEROKO PATROIA

«Arrauna oso kirol gogorra da, egunero orduak eta orduak eman behar dira uretan»

ANOETA Astillero taldean dabil azkenaldian eta zortzi kideko banku mugikorrarekin Espainiako txapelketa irabazi dute 3

Nazioarteko gaurkotasuna gertuago tailer bati esker

TOLOSA Jesus Torquemada kazetariak eskainiko du apirilaren 12tik ekainaren 14ra bitarte 2

Hiru taldek joko dute VIII. Blues Jaialdian

ZIZURKIL Bill Lyerly Band, Los Gatos Bizcos eta Travelling Brothers-ek joko dute larunbatean 7

Tolosa Kantariren hitzordua dultzainariekin

TOLOSA Gaur egingo dute entsegua 20:00etatik aurrera Eduardo Mokoroa udal musika eskolan 2

Nazioarteko gaurkotasunari buruzko tailerra, Jesus Torquemadarekin

Gizartea » Apirilaren 12an hasita, 2 orduko 10 saio izango dira Topic-en, astelehenean, 19:00etan; 30 euro balio du.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Goimailako Lanbide Heziketa Institutuak, Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntzako bulegoaren bitartez, nazioarteko gaurkotasunari buruzko tailerra antolatu du, *Mundua gaur egun* izenburupean. Tailerra Jesus Torquemada kazetariak emango du, apirilaren 12an hasi eta ekainaren 14ra arte luzatuko da, eta dagoeneko izena emateko aukera dago.

Hamar saioren bidez, Jesus Torquemada nazioarteko gaietan aditua eta Euskadi Irratia eta ETBko esatariak munduaren gaur eguneko egoera ezagutaraziko du, nazioarteko albisteak sortzen diren lurraldeetan eta etorkizun hurbilean protagonismoa hartu dezaketen lurraldeetan arreta berezia jarri. Halaber, mundua lurralde geopolitikoetan banatuta erakutsiko du eta immigrazioa, globalizazioa eta ingurugiroa sakontasunez aztertuko ditu.

Bost multzotan banatuko du tailerra Torquemadak, eta multzo bakoitza bi egunetan jorratuko du. Ekialde Hurbila, Amerika, Europa, Asia eta Afrika izango dira multzoak. Tailerra astelehenean izango da Topic-en, 19:00etan hasita, eta saio bakoitzak bi orduko iraupena izango du.



Jesus Torquemada kazetaria nazioarte gaietan aditua da. HITZA

Izena emateko hainbat modu

Hamar saiotan banatuta egongo da tailerra, guztira, beraz, 20 orduko iraupena izango du. Bertan parte hartu nahi dutenek 30 euro ordaindu beharko dute. Dagoeneko izena emateko aukera dago, eta plazak mugatuak direnez, lehenbailehen izena ematea komeni dela azaldu dute Tolosaldean Ikastn zerbitzuek.

Tailerrean izena emateko info@ikastn.com helbide elektronikora idatzi beharko da, edo www.ikastn.com webgunean ma-

trikula egin. Tailerrari buruzko edozein kontsulta edo zalantza 943 65 11 47 edo 615 77 5 678 (Gemma Zelaia) telefono zenbakietara hots eginez argitu ahal da. Izena ematean Ikastn zerbitzuak kontu korronteko digituak jakinaraziko ditu ordainketa egin ahal izateko. Ondoren, ordainketa agiria aurkeztu beharko da Ikastn bulegoan, Tolosaldea Goimailako Lanbide Heziketa Institututuan. Bulegoa 08:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 18:00etara egoten da zabalik.

» DATUAK

- **Tailerra.** *Mundua gaur egun* Jesus Torquemada kazetariarekin.
- **Noiz.** Apirilaren 12tik ekainaren 14ra. 2 orduko 10 saio. 19:00etan.
- **Non.** Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan.
- **Izen-ematea.** info@ikastn.com edota www.ikastn.com-en. 30 euro.

Multzoak

- **Ekialde Hurbila.** Munduan konplexutasun handiena duen zonaldea da, irtenbide zaileko gatazkak dituena. Guztiek interesak dituzte bertan, batez ere, petrolioarengatik.
- **Amerika.** Obamak aldatuko al du Bushen Estatu Batuetan utzitako irudi kaltegarria? Amerikak azken 20 urteetako unerik erakargarriena bizi du.
- **Europa.** 27 kide dira gaur egun, eta euroaren finkatzeak Europar Batasuna ahituta utzi du. Europar proiektua krisian dago hainbat faktorerengatik, baina, aldi berean, indartsu jarraitzen du.
- **Asia.** Chinak ekonomiaren hazkunde ikaragarria izan du 30 urteetan, eta berarekin batera, Asia osoa gorantz doala esan daiteke. India izan daiteke hurrengo potentzia handia.
- **Afrika.** Itxaropena galduta duen kontinentea da hainbat arrazoiengatik: gosea, gerrak, txirotasuna, gaisotasunak... Hala eta guztiz ere, badira baikorki pentsatzeko benetako arrazoiak; dituen lehen-gaiak, esaterako.

Tolosa Kantari ekimeneko entsegua izango da gaur, Musika Eskolan

Kultura » Hilabete honetako Tolosa Kantari larunbatean izango da; kasu honetan, dultzainarien laguntzarekin.

ERREDAKZIOA

Tolosa Kantari ekimenak antolatuta, kantu entsegua izango da gaur, Tolosako Musika Eskolan, 20:00etatik aurrera. Entsegu honetan larunbaterako abestiak kantatuko dituzte, izan ere, hil honetako Tolosa Kantari euskal kantujira larunbatean, hilaren 27an izango da, ohi bezala, 12:00etan hasita, Tontokalen.

Oraingo honetan Tolosako dultzainarien laguntza izango dute parte-hartzaileek. Antolatzaileek «kantuan arte atsegina pasa nahi duen oro» gonbidatu nahi dute ekimenera, «guztientzat atekak zabalik baitaude».



Azkua mendia igo ahal da. HITZA

Sunbillatik Etxalarrera mendi irteera antolatu du Alpino elkarteak

Mendia » Igande honetan izango da; Azkua mendia igoko dute txangoa egitera animatzen direnek.

ERREDAKZIOA

Alpino Uzturre elkarteak mendi irteera antolatu du igande honetarako, hilaren 28rako. Txangoa Sunbillatik hasi eta Etxalarren bukatuko da eta Azkua (784m.) mendia igoko dute. Autobusaren irteera Santa Klaratik izango da, 08:00etan. Iraupena 6 ordu ingurukoa izango da. Izena eman nahi duten bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute autobuserako, eta ez bazkideek, berriz, 13 euro. Telefono bidez 943 65 27 89 zenbakian, edota e-mailaz alpinouzturre@hotmail.com helbidean egin ahal da.

Tolosa CFkoek emaitza onak lortu dituzte azken txapelketetan

Kirola » Atleta gazteek nahiz helduek hainbat domina lortu dituzte Euskadiko nahiz Espainiako probetan.

ERREDAKZIOA

Tolosa CFko kirolariak maila onean jarraitzen dute, eta horren adierazle azken bi asteetan parte hartu duten txapelketetan lortu dituzten emaitza onak.

Hilaren 14an Zornotzan, Euskadiko Kros txapelketa jokatu zuten, eta bertan, jubenil mailako irabazlea Unai Arroyo izan zen. Ander Ortiz, berriz, bigarren geratu zen. Nesketan Ane Elizegik bigarren postua eskuratu zuen, Alazne Ezeiza seigarren geratu zen, eta Maialen Urretabizkaia, hamairugarren. Junior mailan, berriz, Tamara Lozano bigarren izan zen eta mutiletan Eneko Garin bederatzigarren. Kadete nesketan, Ane Amondarainen 17. postuan amaitu zuen.

Iragan asteburuan, Barakaldoko Euskadiko eskolarteko Kros txapelketa hartu zen. Infantil nesketan Nera Murua 3. izan zen, Jone Gomez 6., Leire Alargunso 20. eta Leire Ezkerro 22. Mutiletan, Iñigo Garmendia 3., Odei Arrieta 7. eta Gorka Sorarrain 10.

Asteburu horretan, Donostian pista estaliko Euskadiko Txapelketa jokatu zuten. 400 metroetan Iker Epelde 2. izan zen 50"80ko markarekin. 200 metroetan Xabier Artieda 22"79rekin finalerako sailkatu zen, baina ez zuen parte hartu. Iruñe Agirrezabalak 60 metro hesietako proba irabazi zuen 9"23ko markarekin eta luzera jautzian bigarren izan zen 5 metro eta 27 zentimetroko markarekin.

Beteranoak ere bikain

Zaragozan, bestalde, pista estaliko Beteranoen Espainiako Txapelketa izan zen pasa den asteburuan. Armando Rocak M75 kategorian 60 metroetako proba irabazi zuen 8"87rekin eta Espainiako errekor berria ezarri zuen. Juan Carlos Etxebeste Moxo M55 kategorian bigarren geratu zen 400 metroetan 1'02"27rekin eta hirugarren 200 metroetan 27"21eko markarekin. Andu Martinez de Rituertok bi urrezko domina lortu zituen, altuera jautzian 1,72 metro saltatuz eta 60 metro hesietan 9"91 eginez.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

UGAITZ MENDIZABAL Astilleroko patroia

Anoeta » Astillero arraun taldearekin dabil lehian Ugaitz Mendizabal anoetarra; orain gutxi Espainiako txapelketa irabazi du taldeak zortzi kideko banku mugikorrarekin.

ESTI EZEIZA

Tolosaldeko lehorreko ingurua izan arren, itsasoa gertu izatean, arraunlari askoren harrobi ari da izaten azken urteetan. Ugaitz Mendizabal (Anoeta, 1991) gaztea Tolosaldeko Arraun Klubean hasi zen duela urte batzuk eta orain Astilleron (Kantabria) ari da patroilana egiten. Aurten Espainiako Txapelketa irabazi dute banku mugikorrarekin.

Noiz hasi zinen arraunean?

Lehen futbolean jolasten nintzen, baita xarean ere. Baina lagun batek arraunean ibiltzera eraman zidan eta azken honekin jarraitzea erabaki nuen. Duela bost urte hasi nintzen arraunean Tolosan. Lehendabizi infantiletan, gero kade-teetan eta azkenik, jubenetan.

Duela bost urte gutxi zineten Tolosan arraunean zenbiltzatenak.

Oso gutxi ginen, gure batela, infantilena eta beste bat, neskena, bakarrik zeuden. Gainera, bost ginen gu, hau da, ez zegoen ordezkorik. TAK-ek lehendabiziko batela atera zuenean ni hor nengoen. Pixkanaka jende gehiago hasi zen, eta orain berriz, arraunlari ugari dago eskualdeko klubean.

Denboraldi berri hau Astillerorekin hasi duzu.

Jubeniletatik seniorretara igaro beharra neukan. Orduan, Euskadiko txapelketa irabazi genuen eta oso hazita geunden. Hala, TAKen jarraitu behar genuen edo ez erabaki beharra zegoen. Baina, maila horretan gaudenok ez daukagu tokirik Tolosaldeko taldean, eta Oriora edo beste talderen batera joateaz hitz egiten hasi ginen. Hasiera batean, Oriora joatea pentsatzen nuen, baina azkenik Astilleron amaitu dut. Anjel Larrañaga nire betiko entrenatzailea Astilleroko bigarren entrenatzaile da, eta bere eskutik joan nintzen hara.

Astillerora joan zara bizitzera ere.

Bai, aste guztia han igarotzen dut. Igandetan etortzen naiz normalean, eta bi egun egiten ditut hemen TAK-eko jubenilak entrenatzen.

Astillerora joateko aukera agertzean, zalantzarik izan al zenuen?

Ez, oso argi neukan arraunean jarraitu nahi nuela, eta ez nuen inongo zalantzarik izan. Eskaini zidateanean, hasieratik baiezkoa eman nuen.

Ontzi ezberdinetan aritzen zara patroilanetan.

Trainerruan, banku mugikorrean, trainerillan eta batelean ibiltzen naiz. Banku mugikorrean ibili naiz



E. EZEIZA

«Patroiari uretan errespetua izan behar diote arraunlariak»

azken denboraldian, hau zortziko olinpikoa da. Bertan dauden arraunlarietako askok Espainiako selekzioarekin jokatzen dute. Datoren hilabetean batelean eta trainerillan hasiko naiz ibiltzen, Kantabriako txapelketan.

Banku mugikorrarekin Espainiako txapelketa irabazi duzue. Zer moduz joan zen hau?

Galizian jokatu zen, eta nahiko errez irabazi genuen. Ni oso urduri nengoen, banku mugikorrean ateratzen nintzen lehendabiziko aldian baitzen. Astillerorentzat oso txapelketa garrantzitsua zen hau. **Ontzi batetik bestera, egin beharreko lana asko aldatzen al da?**

Banku mugikorrean, esaterako, ipurdia mugitzen da, eta hankekin lan gehiago egin behar da. Artifizialagoa da. Nahiago dut batela eta trainerilla. Bestean eserita joaten zara, bi sokei helduta eta lema suarebe-suabe mugituz. Egonkortasun gutxiago dauka honek.

ACT ligan parte hartuko al duzu?

Batelean eta trainerillan ni izango naiz patroia, baina traineruan, ACT ligan, ez dakit ziur, bi patroia gara, eta bakarra joango da hara. ACT liga gogorra da, eta agian debutatuko dut han, baina ikusi egin beharoko da.

«Arrauna oso kirol gogorra da, egunero orduak eta orduak eman behar dira uretan»

Asteburu honetan Orion lehiatuko zarete.

Orioko jaitsiera jokatuko da asteburu honetan, eta bertan traineruan aterako gara. Orain traineruarekin prestatzen ari gara, jaitsiera ezberdinetan ari gara parte hartzen.

Zein ezaguarri izan behar ditu patroiak?

Errespetua izan behar dizute

arraunlariak. Uretan behintzat bai, kanpoan lagunak izan gaitzake, baina uretan, errespetua izan behar dizute. Hori Tolosan ez zen horrenbeste nabaritzen, baina han bai. Denek, patroiak esaten duena egiten dute.

Asko nabaritu al duzu profesionaletarako jauzia?

Bai, asko. Nik ez nuen uste Astilleron egoteko gai izango nintzenik. ACT liga oso gogorra da, eta lan handia egin beharra dago.

Ba al dago afiziorik Astilleron?

Bai, oso handia. Agian ez Castron adinako, baina jende helduak esaterako, asko jarraitzen du.

Arraunlari gehientzat, Kontxako bandera da helburua

Kontxan, parte hartzea bakarrik izugarria izango litzateke. Beti kanpotik ikusi izan dut, eta bertan sartzea ikaragarria izango litzateke.

Arraunari, merezi adinako tokia ematen al zaio komunikabideetan?

Hemen agian ez, baina Kantabria aldean bai. Esaterako, Espainiako txapelketa irabazi genuenean, komunikabideen hamar dei gutxienez jaso zituen. Hemen, traineruen liga eta ateratzen dira, baina, trainerilla, batel eta banku mugikorrak ez. Zer bait ateratzen da, baina gutxi.

Nolako da zure egunerokoa?

«Beti kanpotik ikusi izan dut Kontxa, bertan parte hartzea bakarrik izugarria izango litzateke»

Goizean, normalean, mugikorrean ibiltzen garenok, hamarrak aldera geratzen gara eta uretara ateratzen gara. Han 12:30ak aldera arte ibili eta gero batzuk ergometroan ibiltzen dira eta besteak etxera joaten dira. Arratsaldean berriz, traineruan ibiltzen dira lehendabizi, eta amaizeko gimnasioan. Ni gimnasioa joan beharrian, korri egitera joaten naiz. Egunean zortzi ordu inguru igarotzen ditugu.

Patroien kasuan, garrantzitsua da pisu gutxi izatea.

Bai horregatik joaten naiz ni korri egitera. Nirekin batera dabilen beste patroiak ni baino hamar kilo gehiago ditu, eta hau niretzat abantaila da. Pisu gutxiago izanez gero, popa altuago joaten da.

Arrauna, kirol gogorra dela esango al zenuke?

Bai, oso gogorra. Orduak eta orduak eman behar dira uretan. Ez bazazu arrauna gustatzen, utzi, denbora galtzea baita. Eguneroko ordu asko sartzen ditut nik klubean. Bestalde, elikadura ere zaindu beharra dago, uda alderako ongi egoteko.

TAKekin lotura izaten jarraitzen duzu?

Bai, noski. Larraizan da niri gehien lagundu didan pertsona, eta beti ongi hartu didate TAKen. Zer bait behar dudan guztietan, beti hor daude.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Haurrak edo helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume eskaintzen da. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 647-29 96 25.

■ **Eskaintza.** Bigi garbitasunak, alfonbrak, etxeak, bulegoak, eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Telefono zenbakiak: 638-94 46 04 (Gurutze) eta 695-70 82 71 (Belen).

«2010 arrazoi ditugulako martxan jartzeko»

Tolosa » Emakumeen Mundu Martxaren baitan ekitaldi desberdinak izango dira martxoaren 8tik 13a bitarte.

ERREDAKZIOA

Orain bost urte egin bezala aurten ere Emakumeen Mundu Martxa egingo dute, horrela emakumeek mundu osoan jasaten duten pobrezia eta jasaten duten indarkeriaren aurka «indarrak batu eta mundua astintzeko».

Emakumeen Mundu Martxako Tolosaldeko Plataformak esandakoaren arabera, Emakumeen



2005ean Emakumeen Mundu Martxaren baitan Tolosan antolatutako ekitaldieta bat. I. GARCIA

Mundu Martxan munduko bost kontinentetako emakumeek hartuko dute parte, eta nola ez baita gure eskualdeak ere. Izan ere, martxak martxoaren 11an zeharkatuko du Tolosa.

Era berean, martxako arduradunek esandakoaren arabera, «baitugu 2010 arrazoi baino gehiago martxan jartzeko. Emakumeen elkartasunean oinarritzen den martxari ekingo diogu eta aldarrikapenez beteko ditugu Euskal Herriko herriak, hiriak eta kaleak».

Eskualdean

Eskualdeari dagokionez, martxa honen baitan hainbat ekitaldi izango dira martxoaren 8tik 13ra. Ber-

tan «bakoitzaren esperientziak, aldarrikapenak bat egin eta elkartasunean, askatasunean eta parekidetasunean oinarrituriko mundu berria eraikiko dugu», argitu dute. «Horregatik emakume guztiak egingo diren ekimenetan parte hartzeko, zure iritzia mugimendu honetan konpartitzera eta emakumeon eskubideen defentsa kalean egitera», gaineratu dute.

Bihar bilera 19:30ean Tolosako Kultur Etxean

Horiek horrela, ekarpenak jasotzeko bilera egingo dute bihar, hilak 25, 19:30ean Tolosako Kultur Etxean.

Gazteentzako antzerki tailerra antolatu dute

Aduna » Asvineneak antolatu du ikastaroa eta bukatzerakoan emanaldi bat eskainiko dutela ere aurreratu dute.

ERREDAKZIOA

Asvinenea eskolaz gazteei zuzendutako antzerki tailerra antolatu du. Irakaslea Maider Bartolome izango da eta eskolen eguna zein ordua zehaztu egin behar dute oraindik.

Ikastaroan interpretazioa, ahotza eta gorputz adierazpena landuko dituztela jakinarazi dute. Guzti honekin batera kontzentrazioa,



Maider Bartolome eskainiko du gazteei zuzendutako tailerra. N. LATABURU

arnasketa, erlaxazioa, memoria eta irudimena bezalakoak ere landuko dituzte, besteak beste.

Ikastaroa bukatzerakoan emanaldi bat eskainiko dutela ere argitu dute. Izena emateko 647-20 14 01 telefono zenbakira deitu behar da.

IV. Poltsiko Antzerki Lehiaketa

Bestalde, Asvineneak urtero antolatzen duen Poltsiko Antzerki Lehiaketan parte hartzeko izenemate epea zabalik dagoela gogoratu dute, martxoaren 12an bukatuko delarik.

Aurtengoa laugarren edizioa da eta izena emateko poltsiko10@gmail.com helbide elektro-

nikora idazteko edota 665-73 80 81 telefono zenbakira deitzeko eskatu dute. Informazio gehiagorako, dena den, www.asvinenea.com webgunea bisitatzeko eskatu dute.

Formatu txikiko ikuskizunak

Asvineneak formatu txikiko ikuskizunak sustatzeko eta zabaltzeko konpromisoa hartu zuen eta horregatik antolatzen ditu urtero horrelako ekitaldiak.

Kultur trukerako espazioen sortze eta gestioa edota beste elkarteekin kolaboratzeko helburua ere badute. Lehiaketa honetarako Organizazio izenez izendatu duten lan taldea sortu dute eta beraien lana oinarriak zehaztea izan da.



harpidedun izateak badu saria

① Otordua

Adunako ZABALA sagardotegian 2 pertsonentzako otordua



Garagartza baserria
20150 Aduna
Tel.: 943 690 774
www.rzabala.com

② Kirol materiala

Lagun Aro GBC saskibaloit taldearen baloia eta bufanda



③ Diskoa

Gaztelupeko hotzak etxeak eskeinia Bill Lyerly Band-en "Too Hurt to cry" diskoaren 2 ale



④ Diskoa

Gaztelupeko hotzak etxeak eskeinia Travelling Brothers-en "Red, Hot & Blue" diskoaren 2 ale



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza



Erremonte partida bat Galarreta frontoian. HITZA

Erremontea airean

Kirola » Galarreta enpresak martxoaren 31n jarduera etengo duela azaldu du; erremonte profesionalaren geroa, beraz, kinka larrian dago.

IMANOL GARCIA

Erremonte profesionala kudeatzen duen Galarreta enpresaren arduradunak prentsaurrekoa eman zuten atzo bere jarduera martxoaren 31n bukatuko dela esanez. Manuel Puertas administrazio kontseiluko lehendakariak eta Juan Antonio Erzilla enpresaren kudeatzaileak azaldu zuten, «azken urteotan diru asko galdu du enpresak. Ez genuen nahi une hau iristea, baina tamalez hala gertatu da».

Eskualdeko lau pilotari daude egun profesionaletan jokatzeko: Zeberio II.a elduaindarrak, Aizpuru II.a tolosarra, Altuna II.a amezketarra eta Iñaki Agirre Gaztelu leitzarria. Azken biak bajaran daude gauregun.

Altuna II.ak azaldu duenez, «lehengoan bilera izan genuen pilotariak enpresarekin eta esan zitzaizgun egoera jasangaitza zela eta ezin zutela horrela jarraitu eta ixtea pentsatzen zutela. Ezustean

harrapatu gaituzte». Dirudienek, irtenbide bakarra norbaitek edo talde batek erremontean jardueratzea da. «Martxoaren 31 bitarte ikusi egin beharko dugu ea bakarren bati interesatzen zaion», azaldu du pilotari amezketarrak.

«Enpresatik esan ziguten interesatuak badaudela, baina hortik horretan benetan sartzera salto handia dago. Orain airean ikusten dugu. Arriskuan dago erremontea eta inor ez bada sartzen pena handia izango da».

Erremontean egoerak beherrako bidea orain urte batzuk hasi zuen. «Azkeneko urteetan beti komentatzen zen jendea gutxiago jokatzen zela», azaltzen du Altuna II.ak. «Nik uste dut behin betiko

erremontea azken aldiko krisialdi honek eman diola. Erremontea ez da eskupilota bezala. Eskupilotak telebista eta publizitatearen aldetik diru-iturri handiak izan ditu. Erremontek ez ditu horiek izan. Beti bizi izan da apustuetatik eta sarreretatik, batez ere apustuetatik. Krisialdi honetan apustuak asko jaitsi dira, jendeak ez du dirua lehen bezala. Lehen ere errenka bazegoen erremontea, honek erremontea eman dio».



Galarreta frontoia orain 40 urte eraiki zuten. HITZA

«Ez genuen nahi horrela bukatzea»

Egun 30 pilotari inguru daude profesionaletan jokatzeko. «Pilotari gazte asko daude, ilusioarekin eta gogoarekin zerbait egiteko erremontean», azaldu du Altuna II.ak. «Beteranoak ere badaude eta denek nahi duguna da erremontek jarraitzea. Urte dezente aritu garenontzat gure bizia izan da, erremontek asko eman digu eta ez genuen nahi horrela bukatzea. Denak desiratzen gaude jokatzeko jarraitzeko eta ea norbait animatzen den, proiektu on bat aurkeztu den eta ilusioarekin sartzen den. Nik uste dut sartzen den lan egiteko gogoarekin eta ilusioarekin sartu behar duela».

Pilotariak «ezer gutxi» egiteko dutela dio amezketarrak. «Segitzeko prest dagoen enpresa behar dugu. Jokatzeko jarraitu nahi dugu, baina guk bakarrik gure aldetik ezin dugu ezer egin». Erremonteko eskolek, horietako bat Tolosan, jarraitu beharra dutela dio amezketarrak.

100 urteko historia

Instituzioen laguntza eskatzen dute pilotariak. «Hainbeste urtean jokatu den kirola izanik, hori kontuan izan beharko lukete. Hemen goi kirola da», zehazten du Altuna II.ak. «Historia handia du eta hori dena kontuan hartuta, ea instituzioek zerbait egiten duten». Erremontea Iruñean sortu zen orain dela 100 urte inguru. Galarreta frontoia orain 40 urte eraiki zuten Hernanin (Gipuzkoa). Profesionalak jokatzeko aritzen diren beste frontoia Uhartekoa (Nafarroa) da. Orain gutxi ospatu dute frontoi zaharra eraiki zenaren 100. urteurrena. Bi pilotalekuak Galarreta enpresak ematen ditu.

Galarreta enpresak erabakia hartu du eta orain esperoan daude beste enpresari edo enpresa talde batek bere gain hartzen duen kirol jarduera hori. Manuel Puertasek adierazi zuenez, «pilotariak otsailaren 15a arte zuten lan-hitzarmena. Eztabaiden ondoren, martxoaren 31 arte luzatzea erabaki zen. Alde batetik, Galarreta enpresatik jende gutzia azkeneko zentimora arte kobratzen ateratzea nahi dugulako. Bestetik, epe bat izateko ea enpresa bat agertzen den erremonteari jarraitzeko». 30 pilotarietz gain, enpresak hamar artekari eta hamar langile ditu.

«Nahiko zaila dut pilotan jarraitzea»

I. GARCIA

Erremontean etorkizunaz gain, egun Altuna II.ak kezka nagusia goga du: pilotakada batek begian eragin zion lesioa. «Nik orain buuruan nire egoera dut», azaldu du amezketarrak. Lesioaren osaketa «nahiko berde» dagoela dio pilotariak eta erremontean jokatzeko jarraitzea «nahiko zaila ikusten dut. Esperantza gutxi eman dizkide

medikuek». Aurreko astean egon zen Bartzelonan sendagilearekin eta lesioa «pixka bat hobetu dela, baina ez asko» esan diote.

Berriz ere hilabete barru itzuliko da Bartzelonara Altuna II. «Ehun modukoa egin zait begian eta hori kontrolatu egin behar da, erretina askatzeko arriskua dagoelako. Hilabetera bueltatu behar dut eta geroago ebakuntza egin be-

har den esango didate». Amezketa-tarrak dioenez, lesioa «luzerako izango dela badakit. Pilotan jokatzeko nahiko zaila daukat».

Lehiaketatik kanpo, enpresaren partida batean jaso zuen pilotakada Altuna II.ak. Sei egunez Gipuzkoako Ospitalean igaro zituen eta horren ondoren Bartzelonako IMO Klinikak egiten dio lesioa osatzeari tratamendua.

ATE IREKIAK

Goierriko campusa
INGENIARITZA

OTSAILAK 25
osteguna - 17:30
ORDIZIA

EZEKIALDEKO HITZA
EZEKIALDEKO HITZA
EZEKIALDEKO HITZA

m

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

etorri surretik
izena eman!

943 88 00 62 (Ei)
bulegoa@goierrieskola.org

www.mondragon.edu/prast

Berdinketa Ibarrentzat UPVren aurkako derbyan

Ibarra » Donostiako Bidebieta kiroldegian jokatu zuten ibarrentzat; partida ikusgarriaz gozatu ahal izan zuten zaletuek.

ERREDAKZIOA

Berdinketa poltsikoan bueltatu ziren etxera pasa den asteburuan Ibarrentzat futbol taldeko jokariak. Aurrez aurre UPV-Inter talde donostiarrak izan zuten ibarrentzat eta 3 eta 3ko emaitzarekin amaitu zen norgehiagoka.

Gipuzkoarren arteko derby honetan «giro polita nagusi izan zen eta, ohi bezala, partida borrokatu» jokatu zuten bi taldeek, Ibarrentzat taldeko prentsa arduradunak, Jose Manuel Tobiasek, azaldu bezala.

Ibarrentzatekin zion partidari Donostiako Bidebieta kiroldegian, «aukera askorekin», baina ez zuten asmatu gola egiten, «gehiegi barkatu» zuelarik. Edonola ere, goiz heldu zen bisitarien lehen gola, 6. minutuan sartu baitzuen Cristian Davilak Ibarrentzatekin lehen

gola, Unai Labakak eginko erdira-kerari esker.

Bide beretik jarraitu zuen partidak eta Ibarrentzatekin aukerak sortuz jarraitu zuen. Baina golak ez ziren heldu. Kiroldegiko lurra-ren egoera ere «ez zen onena», erretxina zabaldua zegoelako eta honek ez zien lagundu.

Bi minutu, bi gol

Eta lehen zatia horrelaxe amaitu zen, 0-1ekoarekin, alegia. Bigarren zatia-aren hasiera lehenengoaren tankerakoa izan zen. Hala, «ibarrentzatekin ederki hartu zituzten mendean etxeak» eta lehen minuturako 0-2koa egitea lortu zuten, Aitzol Oyarbidek eginko golari esker.

Baina bi minutu nahikoa izan ziren UPVkoentzat eta 23 eta 24. minutuetan 2-2koa egin zuten. Erruduna, gainera, Ibarrentzatekin Mauro Ayerza jokalaririk ohi izan zen. Lau minutu beranduago Ayerzak berek 3 eta 2koa igo zuen markagailura. «Gol polita sartu zuen Ayerzak, egia esan, talde guztiak hartu zuen parte, gainera», argitzen du Tobiasek.

Markagailuan atzetik zihozazela,

UPV-Inter **3**

Ibarra **3**

■ Ibarra.

Igor Zabalo, Unai Labaka, Ion Garmendia, Cristian Davila eta Victor Silva.

■ Golak.

Unai Labaka (1), Cristian Davila (1) eta Aitzol Oyarbide (1).

■ Ordezkoak.

Iñigo Arrospe, Loitzun Sanz, Aitzol Oyarbide eta Ander Esnola. Ordezko atezaina, Joseba Barleri.

urdiritu egin zen Ibarrentzatekin eta baloiak galtzen hasi ziren. «Noraeezan» bezala zebilen taldea. Bainabi minuturen faltan Unai Labakak berdinketaren gola sartu zuen.

Bitaldeetako zaletuek ere bikain erantzu zuten eta giroa ezin hobe izan zen harmailetan, istilurik gabekoa.

Jubenilek, aldiz, lehen postuan jarraitzen dute, Ceramicas Nogales taldearen aurkako partidaren irabazi ondoren (9-2).

2010eko aurrekontu orokorrak eztabaidatuko dituzte etzi

Ibarra » Ez ohiko bilkurara deitu du Udalak etziko, 13:00etan udaletxeko pleno aretoan.

ERREDAKZIOA

Ibarrentzatekin ez ohiko bilkurara deitu dituzte, otsailaren 26a, Udaltzako partaideak. Udaletxeko pleno aretoan egingo dute bilkura eta 13:00etan hastea aurreikusitako. Gai garrantzitsua izango da mahai gainean, 2010eko aurrekontu orokorrak eztabaidatuko baitituzte.

Gai gehiago ere bilkuran

Beste hainbat gai ere jorratuko dituzte ez ohiko bilkuran. Tartean, aurrekontua egikaritzeko Udal araudia, 2010eko Udal langileen zerrenda organikoak, 2010eko Udaleko lanpostuen zerrenda, eta 2010erako langileen ordainsari osagarriak eztabaidatuko ditu Udaltzako.

Amairan galde eskeen txanda izango da.

Errioxako upategi batera txangoa antolatu dute «Ibarrentzatekin ardozaleek»

Ibarra » Heldu den martxoaren 6an izango da; izena Azoka dendan eman daiteke, 35 euroren truke.

ERREDAKZIOA

Heldu den martxoaren 6rako arabar Errioxara egun pasa antolatu du «Ibarrentzatekin ardozaleen txokoak». Zehaztu dutenez, 26 lagunek autobusa osatu nahi dute. Izena eman nahi dutenek Azoka dendan egin dezakete, 35 euroren truke.

Txangoaren egunean 08:15ean abiatuko dira. Villanuevako Luis Cañas upategian ordubeteko bitarteko egingo dute eta gero hamaiketako egingo dute. Bazkaria, berri, herriaren bertan, Pagos de la Buena upategi txikian, egingo dute. Antolatzaileek zehaztu dutenez, helburua «upategi handi bateko funtzionamendua eta ardoak upategi txiki batekoarekin alderatzea» izango da eta, noski, ondo pasatzea. «Ibarrentzatekin ardozale guztiak gonbidatu nahi ditugu», zehaztu dute.



Zuhaitz berriak San Frantziskon

TOLOSA » Urteko sasoi honetan ohikoa den argazkia topatu daiteke egunotan San Frantzisko ibiltokian. Izan ere, udaberriaren gertutasuna aprobetxatuz, lan-

gileak zuhaitzak aldatzen ari dira. Urtaro berriari begira, ibiltokian egoera onean dauden zuhaitzak egotea da helburua. R. CALVO

Ohiko bilkurarako deialdia, biharko

Amezketak » Udal aurrekontuak eztabaidatuko dituzte, besteak beste; 20:30ean izango da udaletxean.

ERREDAKZIOA

Udaletxeko pleno aretoan ohiko plenoa egingo du bihar Udaltzako, 20:30etik aurrera. Bederatzi puntu aurreikusitako dituzte.

Lehenik eta behin, 2010eko urtarrilaren 28an eginko akta agiriarren onarpena egingo dute. Ondoren, alkatetzaren ebazpenen berri emango dute; Joxepi Saralegik eta

Antton Amondarainek eginko obra baimen eskaera aztertuko dute hirugarrenik, baita Juan Mari Ruizek eginko obra baimen eskaera ere.

Herriko ur sarea zatikatu eta kontrol informatikoa ezartzeko obraren esleipenaz ariko dira eta Naturgas enpresak 2009ko ekitaldian lurzoruko publikoaren erabiltzeagatik ordaindu beharreko %1,5eko tasa eztabaidatuko dute.

Zazpigarren puntuak 2010eko udal aurrekontuei dagokio, baita udaletxeko langileen zerrenda organikoari ere. Batzorde informazioa eta galdera eta erregutarako tartea izango da azkenik.

Hilberria

EUGENIA AIZEBURU GALARZA

ANDREA

(Angel Barabarren alarguna)

Tolosan hil zen, 2010eko otsailaren 22an, 94 urte zituela.

-Goiain bego-

Seme-alabak: Karmen (Ignazio Aierberren alarguna), Helena eta Javier (Iglesias); bilobak: Eukene eta Rafa, Ana eta Xabier eta Kaiet; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusurik-ehengusurik eta gainerako ahaidak.

Hil eta eltzizuna ASTEAZKENEAN arratsaldeko ZAZPIETAN, Tolosako SANFRANTZISKO parrokiaren izango da.

Helbidea: Euskal Herria, 5.

Oharra: Familiak Tolosako Funeraria Vascongandaren Beiletegiaren, Kordeko aldapa 5ean, asteazkena goizeko 09:45ak arte hartuko zaitez.



IBARRA
2010eko
otsailaren 24a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel. 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

«Ezer ez ta festa» VIII. Blues Musikaren Jaialdian

Zizurkil » Larunbatean, 23:00etatik aurrera Blues doinuak izango dira entzungai Atxulondon, Egarrin eta Aurreran.

ENERITZ MAIZ

Larunbatean, hilak 27, «ezer ez ta festa» izango da Zizurkilen, hau da, VIII. Blues Musikaren Jaialdia. 23:00etatik aurrera *Bill Lyerly Band*, *Los Gatos Bizcos* eta *Travelling Brothers* taldeek joko dute herriko hiru tabernetan goizaldeko ordu txikiak bitarte eta sarrera doakoa izango da.

Zuzeneko musika entzuteko aukera paregabea eskaintzen du Zizurkilgo Blues gauak. Hilaren 27an blues musikaren zaleek ederki gozatuko dute eta ez direnek, aldi-z, musika mota hau ezagutzeko aukera izango dute Zizurkilgo tabernetan. Zizurkilgo Udalak antolatuta du jaialdia Atxulondo, Egarrin eta Aurrera tabernen laguntzarekin, taberna horiek baitira, azken finean, musika kontzertu hauen eszenatoki izango direnak.

Bill Lyerly Band, AEBetatik

Bill Lyerly Band AEBetatik datorren taldearekin emango zaio hasierajaialdiari, 23:00etan Atxulondo Tabernan. Euskal Herrira egindako bisitaldi gutxi batzuk nahikoak izan ditu Bill Lyerly konpositore, gitarista, tekla-jotzaile eta abeslariak lurralde honetan eta bere kulturarekin maitemintzeko. Bere ibilbide luzean beste bide bati ekiteko erabakia hartzeraino mai-

temindu da, gainera. Oraingo honetan oinarriak Euskal Herrian egokitu ditu, hemen hauteman baitu jendeak bere musikarenganako duen estimu handia. Musika-riak berak, bere musika «blues alternatibo gisa» definitzen du. Horrexegatik argitaratuko du *Gaztelupeko Hotsak* zigiluarekin *Too Hurt To Cry* albuma, Ameriketako Estatu Batuetan grabatu uzten eta Londresko Abbey Road estudio ospetsuetan masterizatu zuten lana. Bertan bluesaren eta amerikar musika sustrauidunaren aurreko ikuspegiak azaltzen ditu.

Los Gatos Bizcos, Madriletik

Bill Lyerlyren emanaldiaren ostean, 00:15ean, *Los Gatos Bizcos* Madril dar taldeak eskainiko du kontzertua Egarrin Tabernan. *Los Gatos Bizcos*, lehen aldiz 2008. urtean elkartu ziren Madril. Orduan erabaki zuten Pablo Sanpak (The Fritos, King Bee...) eta Quique Gomezek (Juan Scotch & Juan Beer) bateratutako proiektu bat hastea. Lehen pausuen ondotik erabaki zuten proiektuarekin bat egitea Hector Rojok (Blue Perro) kontrabaxuan eta Miguel A. Benito *Petek* (Bob Sands Big Band...) baterian.

Horrela, luxuzko erritmo-aukera duen talde bat osatu zuten. Burgos eta inguruan ibili direnean, Mr. Javier Lopez *Pezjavilo Pez* izan dute beraiekin baxua jotzen. Azken hau, Trago Largo taldeko paritide izan zen eta zirku itua ezagutzeko zuten. Talde honetan Miguel Angel Benito *Petek* batera aritzen.

Beraien musikan eragin asko

ZIZURKIL BLUES
VIII. BLUES MUSIKAREN JAIALDIA
★ ★ ★
OTSAILAK 27 LARUNBATA

<p>23:00 ATXULONDO TABERNA</p> <p>BILL LYERLY BAND USA</p>	<p>00:15 EGARRI TABERNA</p> <p>LOS GATOS BIZCOS Madrid</p>	<p>01:30 AUERRERA TABERNA</p> <p>TRAVELLING BROTHERS Euskal herria</p>
---	---	---

Zizurkilgo VIII. Blues Jaialdiaren berri ematen duen kartela da hau. HITZA

nabari dira, baina batez ere, beraien errepertorio osoan musika beltz Afroamerikarra ageri da.

Los Gatos Bizcos, beraz, ondorengo muskariet osatzen dute: Quique Gomez ahotsa eta armonika jotzen, Pablo Sanpa gitarra jotzen eta koroak egiten, Hector Rojo kontrabaxua jotzen eta koroetan, *Pete* baterian eta koroetan eta Javi Lopez baxua jotzen.

Travelling Brothers taldea, Euskal Herritik

Azken taldea etxekoa izango da, hau da Euskal Herrikoa. Hemen ere badira blues musika egiten duten musikariak eta horietako bat da 01:30ean, Aurrera Tabernan

ariko dena.

Aipatu bezala, Euskal Herrian badira estandarra jotzen duten edo bluesaren balibideak eta eraginak baliatzen dituzten taldeak, baina jazzarekin gertatzen den bezala, gutxi dira generoaren sustaia proiektu baten oinarri gisa bere egiten dituzten interpreteak.

2004. urtea zen *Travelling Brothers* bilbotarrak bluesaren lurraldean barneratu zirenean. Aitor eta Eneko Cañibano anaiak, gitarra eta baxuarekin hurrenez hurren eta Jon Kareaga *Bear*, hauen lehengusua, ahotsarekin (dena familian geratzen da), aurreko *Taladrina* rock proiektuan urrats bat aurrera egiteko erabakia hartu zu-

ten. Horretarako beste bilagun bildu ziren taldera, Isi Redondo bateria-jotzailea eta Ander Unzaga tekla-jotzailea. Hauek, Blues hotsen eta estetikaren aurrean agertzen zuten irrika gero eta biziagoari eszenategian leku egiteko xedean gerturatu ziren taldera.

» VIII. BLUES JAIALDIA

Zizurkil

- **Atxulondotaberna.** 23:00etan Bill Lyerly Band.
- **Egarrin taberna.** 00:15ean Los Gatos Bizcos.
- **Aurrera taberna.** 01:30ean Travelling Brothers.
- **Sarrera.** Doan.

Laburrak

Bazkariko txartelak salgai Toki-Alai jatetxean

IKAZTEGIETA » Martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, Begiristain sagardotegian, martxoaren 6an bazkaria egingo dute. Bazkarira joan nahi izanez gero, 25 euroren truke txartela erosi beharko da. Txartelak, Toki-Alai jatetxean eros daitezke eta azken eguna hilaren 26a, ostirala, izango da. Bestalde, egunean bertan 19:00etan elkarretaratzera egingo dute eta jarraian Herrigintza Elkartearen zine foruma izango da eta *Las Chicas del calendario* filma ikusiko dute. Herritar guztiak gonbidatuta daude erakintza ezberdinetan parte hartzera.

Ostiralean 'Oilategitik' aldizkariak bilera

ALKIZA » Oilategitik taldeak datorren ostiralean, hilak 26, aurtengo alea antolatzen jarraitzeko bilera egingo du. 20:30ean, Kultur Etxeko balio anitzeko gelan elkartuko dira eta herritar guztiak gonbidatuta daude bertara.

Anbulatorioan odol ematea izango da ostiralean

VILLABONA » Ostiral honetan, hilak 26, Villabonako herritarrek beste behin odol emateko aukera izango dute. Anbulatorioan izango da eta 18:30etik 20:30era egongo dira bertan.

Pirritx, Porrotx eta Ken Zazpi Marimotots eta Ken Zazpi

TOLOSA » Martxoaren 6an, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek bi saio eskainiko dituzte Leidorren. Lehen saiorako sarrerak, hau da, 16:30etakoak, jada agortuta daude baina 19:00etarako beste emandaldi bat prestatu dute. Sarrerak dagoeneko 6 euroren truke daude salgai leihatilan edota Kutxako kanalean. Bestalde, udaberri egitaraua aurkeztu ez badute ere, apirilaren 23an, Ken Zazpi taldeak kontzertua eskainiko du Leidorren. Dagoeneko sarrerak salgai daude leihatilan bertan edota Kutxako kanalean. Sarrerak 15 euro balio du.

Ondasun higiezinaren gaineko zergen hobariak

Zizurkil » Familia ugariaren titularrei zuzendua dago honako hobari hau; eskaerak aurkezteko azken eguna martxoaren 15a da.

ERREDAKZIOA

Familia ugariaren titulua izan eta baldintza hori justifikatu dezaketen subjektu pasiboak, zergaren %50eko hobaria aplikatuko zaie.

Hobari hau, 100.000 euroko balio katastralera arte aplikatuko da eta eskaera hauek aurkezteko

epea martxoak 15ean, astelehena, amaitzen da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honakoa da: NAN eta indarrean dagoen familia ugariaren titularen fotokopiak, errolda eta elkarbizitza ziurtagiria, titularrak eta onuradunek ohiko bizilekuaz gain inolako higiezinik ez dutela adieraziko duen Foru Ogasunak emandako ziurtagiria eta 2009ko OHZren ordainagiriaren ziurtagiria. Informazio gehiago nahi izanez gero udal bulegoetan edota 943-69 10 12 telefonora deituz eskura daitezke.

